

EUSKADIKO PARKE TEKNOLOGIKOAK 30 URTE OSPATUKO DITU TALENTUAREN, BERRIKUNTZAREN ETA JASANGARRITASUNAREN ZERBITZURA GIPUZKOAN

- **Beraien jarduera Donostiako Campusean eta Euskadiko Parke Teknologikoko Hernaniko Campusean egiten duten 203 enpresa eta 6.500 pertsona baino gehiago erreferenteak dira proiektu eraldatzaile eta berritzaileetan**
- **Iñigo Urkullu lehendakariak eta Estibaliz Hernaez Euskadiko Parke Teknologikoko presidentek hartu dute parte 30. urteurrenaren ospakizunean; bertan Gipuzkoako Parke Teknologikoaren aurtengo leloa izango dena aurkeztu da: Innfiniturantz**

2024ko otsailaren 9a. Donostia Campusak Euskadiko Parke Teknologikoa Gipuzkoan martxan jarri zeneko 30. urteurrena ospatu du. Ekitaldian, gune horretan lan egiten duten eta Gipuzkoako eta Euskadiko garapen ekonomikoa eta soziala bultzatzen duen berrikuntzarako eta garapen teknologikorako toki bihurtzen laguntzen duten 203 enpresen ordezkariak zabala izan da.

Iñigo Urkullu Eusko Jaurlaritzako lehendakariak eta Estibaliz Hernáez Euskadiko Parke Teknologikoko presidentek hartu dute hitza bertaratutakoen aurrean. Horien artean erakundeetako ordezkariak zabala izan da, Arantxa Tapia Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburua, Bakartxo Tejeria Eusko Legebiltzarreko presidentea, Eider Mendoza Gipuzkoako Diputatu Nagusia, Eneko Goia Donostiako alkatea, Aitor Urzela SPRIko zuzendari nagusia eta Eduardo Ruiz de Gordejuela Kutxabankeko zuzendari nagusia buru zirela.

Beren hitzaldietan nabarmendu duten bezala, Euskadiko Parke Teknologikoko Donostia Campusa, Hernaniko Campusarekin batera, Gipuzkoako eta Euskadiko ekonomiak azken 30 urteetan izandako eraldaketaren adierazlerik nagusietakoa da. Guztira 203 enpresak eta I+Gko eragilek egiten dute beren jarduera kalitate goreneko espazio bereizgarrian. Konpainia horiek 1.405 milioi euroko fakturazio bateratua sortu zuten eta, oro har, 172 milioi euro inbertitu zituzten I+G jardueretan. Guztira, 6.500 pertsona baino gehiagok egiten dute bertan lan, eta horietatik erdiek baino gehiagok unibertsitateko titulua dute.

Zehatzago, Estibaliz Hernáezek Gipuzkoako Parke Teknologikoaren etorkizunaz hitz egin nahi izan du, azken 30 urteetako historia arrakastatsuen gainetik, eta hiru hitzetan laburbildu du: talentua, berrikuntza eta jasangarritasuna. Alde horretatik, Parke Teknologikoaren ibilbidea 30. urteurrena

ospatzeko aukeratutako leloarekin lotu du: Parke Teknologikoaren espiritua eta berrikuntzarekin eta dinamismoarekin duen lotura irudikatzen duen Innfiniturantz.

Iñigo Urkullu lehendakariak Parke Teknologikoko presidentearen hitzak berretsi ditu, eta Donostiako Campusak eta Hernaniko Campusak zientziaren eta teknologiaren euskal ekosisteman duten garrantzia eta, bereziki, Gipuzkoako lurraldeko garapen planak baloratu ditu.

Horrela, ekitaldian gogorarazi da Donostiako Campusean eraikinen % 100 inguru okupatuta daudela, eta, beraz, inoiz baino beharrezkoagoa dela Illunbeko eremuan aurreikusitako hedapena. Horretarako, Donostiako Udalarekin elkarrizketak egiten ari dira.

Era berean, funtsezkotzat jotzen da eraikin berri bat egiten hasiko den Hernaniko Campusaren eta Hondarribiako Campusaren hazkundearen aldeko apustua. Azken kasu horretan, udalerriko HAPO berria izateko zain daude.

Gipuzkoarekiko konpromisoa

30 urteko historian, Gipuzkoako Parke Teknologikoaren jarduera ingurune berezian gauzatu da. Enpresaren etorkizunari buruzko apustua ingurune naturalean egiten du, jasangarritasuna ardatz hartuta, eta espazioen kalitate urbanistikoa eta arkitektonikoa bereizgarri izanik. Bertan, gure gizartearen aurrerabiderako funtsezkoak diren sektoreetan lan egiten duten pertsonak estimulatu, motibatu eta zaindu egiten dira.

Horretaz guztiaz gain, Parke Teknologikoak, sortu zenetik, zientzia eta teknologia gizarteari hurbiltzeko bokazio argia erakutsi du, hainbat ekimenen bidez aurrera egiteko funtsezkoa den ezagutza partekatuz. Bereziki, gazteen artean bokazio zientifiko-teknologikoak sustatu ditu, eta emakumeak zientzian eta teknologian duen zeregina ikusarazi du.

Donostia Campusa sei campus aktiboen (Zamudio/Derio, Leioa, Donostia, Vitoria-Gasteiz, Hernani eta Abanto) eta Euskadiko Parke Teknologikoan proiektatutako hiru campusen (Ortuella, Bilbo eta Hondarribia) parte da. Talentuz eta ezagutzaz osaturiko ekosistema horrek industria arloko euskal politikan berrikuntzari eta nazioartekotzeari rol protagonistak emateko apustua biltzen du.

Azkenik, Euskadiko Parke Teknologikoko Donostia Campusak gaur egun betetzen duen erreferentziatzko tokiaren benetako egileak izan diren eta proiektu honen parte diren pertsona guztien lana aintzatesteke ere balio izan du ekitaldiak. Ilusioz betetako etorkizunari egiten dio aurre, bertan instalatutako I+G arloko enpresek eta zentroek biltzen duten talentuari, ezagutzari eta berrikuntzari esker.



EUSKADIKO
PARKE
TEKNOLOGIKOA

Argazki ofizialen ondoren, egoitza Donostiako Campusean bertan duen Euskal Herriko Gazte Orkestrako (EGO) harizko laukotearen emanaldiaz eta Demode Quartetek egin duen "Over the rainbow" musikaleko kantu baten euskarazko bertsioaz gozatu dute gonbidatuek.

Informazio gehiago:

Euskadiko Parke Teknologikoa

Prentsa Saila

prentsa@parke.eus

T 94 403 95 00